

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



ZTE Blade S6

Bizkor hasteko eskuliburua

LEGE-INFORMAZIOA

Copyright © 2015 ZTE CORPORATION.

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Eskuliburu honen zati bat ere ezin da inolaz ere aipatu, erreproduzitu, itzuli edo erabili inolako modutan edo inolako bitartekoren bidez (elektronikoa edo mekanikoa, fotokopiak eta mikrofilmak barne) ZTE Corporationen aurre-
tiazko idatzizko baimenik gabe.

Oharra

ZTE Corporationek beretzat gordetzen du inprimatzean gertatutako akatsak zuzentzeko eskubidea, baita produktuaren eskuliburu honetako zehaztapenak aurretik abisatu gabe eguneratzeko eskubidea ere.

Autozerbitzua eskaintzen dugu gailu adimendunen erabiltzaileentzako. Sartu ZTE Españaren webgune ofizialean (www.zte.es gunean), autozerbitzuari eta bateragarriak diren modeloei buruzko informazio gehiago nahi baduzu. Webguneko informazioak du lehentasuna.

Erantzukizunetatik salbuestea

ZTE Corporationek ez du bere gain hartzen softwarea baimenik gabe aldatzeak eragindako akatsetatik edo kalteetatik eratorritako erantzukizuna. Baliteke eskuliburu honetako irudiak eta pantaila-irudiak ez izatea produktukoaren berdin-berdinak. Eskuliburu honetako edukia ere baliteke ez izatea produktukoaren edo softwarearen berdin-berdina.

Marka erregistratuak

ZTE eta ZTEren logotipoa ZTE Corporationen marka erregistratuak dira.

Google, Inc.-en marka erregistratutako dira Google eta Android . Bluetooth® marka komertzialaren eta logotipoaren jabea Bluetooth SIG, Inc. da, eta ZTE Corporation-ek lizentziarekin erabiltzen ditu.



ren logotipoa SD-3C, LLCren marka erregistratua da.



Qualcomm® eta Snapdragon™ prozesadoreak Qualcomm Technologies, Inc-en produktuak dira.

Qualcomm Incorporated-en marka komertzialak dira Qualcomm eta Snapdragon, AEBn eta beste herrialde batzuetan erregistratuak. Baimenarekin erabilia.

Lizentziaren baimena eta marka erregistratuaren onarpena behar dira lizentzia duten produktuen kasuan.

Dolby Laboratories-en lizentziapean fabrikatua. Dolby Laboratories-en marka erregistratuak dira Dolby, Dolby Audio eta D bikoitzaren sinboloa.

Gainerako marka edo izen komertzialak dagozkien jabeenak dira.

Bertsio-zk.: R1.0

Edizio-data: ostirala, 2015eko otsailaren 13a

Eskuliburu-zk.: 07958450XXXX

Ezagut ezazu zure telefonoa



Tekla	Funtzioa
Pizteko tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Luze sakatu tekla hau hegazkin modua aktibatzekeo edo desaktibatzekeo, etenik gabeko modua aktibatzekeo, larrialdiko etenen modua aktibatzekeo edo bibraziiodun modua isila aktibatzekeo, modua isila desaktibatzekeo, telefonoa itzaltzekeo edo berrabiaraztekeo. • Sakatu pantaila piztu edo itzaltzekeo.
Hasierako tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu, pantaila nagusira itzultzekeo. • Luze sakatu tekla hau Googleren bilaketa-atarira joatekeo.
Atzera tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu, aurreko pantailara itzultzekeo.
Menu-tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu tekla hau uneko pantailako aukerak ikusteko. • Luze sakatu azkenaldian erabili dituzun aplikazioak ikusteko.
Bolumen-tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Luze sakatu bolumena igotzekeo edo jaisteko.

OHARRA:

Atzera teklaren eta **Menu teklaren** posizioa truka ditzakezu. Joan **Ajustes > Teclas personalizadas** aukerara, pantaila nagusitik, eta hautatu aukera bat.

Nano-SIM txartela instalatzea

Itzali telefonoa nano-SIM txartela sartu edo atera aurretik.

ABISUA

Telefonoan kalterik ez eragiteko, ez erabili beste SIM txartelik, ez eta estandarrak ez diren nano-SIM txartelak, SIM/MicroSIM txartel batetik moztuta sortuak. Zure zerbitzu-hornitzaileak eman diezazuke nano-SIM txartel estandar bat.

1. Sartu txartela ateratzeko tresnaren muturra nano-SIM txartelaren erretiluaren zirrikitan.



2. Atera erretilua, eta jarri nano-SIM txartelak dagokien lekuan, irudian adierazi bezala. Kontu handiz, jarri berriro erretilua dagokion lekuan.



OHARRAK:

- Jarri LTE, WCDMA edo GSM gailuaren nano-SIM txartela **1. zirrikituan**.
- Jarri GSM gailuaren nano-SIM txartela **2. zirrikituan**.

microSDHC™ txartela jartzea (ez dator mugikorrarekin)

Telefonoko microSDHC txartela itzali beharrik gabe instalatu edo atera dezakezu. Ateratzeko, microSDHC txartela desaktibatu behar duzu.

1. Sartu tresnaren muturra, microSDHC txartelaren erretilua ateratzeko.



2. Atera erretilua, eta jarri txartelak dagokion lekuan, irudian ikus daitekeen bezala. Kontu handiz, jarri berriro erretilua dagokion lekuan.



OHARRA:

Aplikazio batzuk behar bezala ibiltzeko edo datu-mota batzuk gordetzeko microSDHC txartela beharrezkoa da. Beraz, gomendatzen dizugu microSDHC txartela instalatuta edukitzea beti eta ez ateratzea edo ordeztea ausaz.

Bateria kargatzea

Telefonoaren bateriak behar adina karga eduki beharko luke pizteko, seinalea bilatzeko eta dei batzuk egiteko. Gomendatzen dugu bateria erabat kargatzea ahalik eta azkarren.

ABISUA

ZTEk onartzen dituen kargagailuak eta kableak soilik erabili. Onartu gabeko osagarriak erabiliz gero, hondatu egin daiteke telefonoa edo bateria lehertu.

KONTUZ:

Ez aldatu zuk zeuk telefonoaren bateria kargagarria. ZTEk edo ZTEk baimendutako zerbitzu-hornitzaile batek bakarrik alda dezake.

1. Konektatu kargagailua korrante-hargune batera.



2. Konektatu kargagailua korrante alternoko entxufe batera.
3. Deskonektatu kargagailua, bateria erabat kargatuta dagoenean.

OHARRA:

- Bateria gehiegi deskargatu baldin bada, kargatzen ari dela adierazten duen ikonoa ohikoa baino beranduago bistaratuko da.
- Bateria ia agortuta baldin badago, agian ezingo da piztu telefonoa, nahiz eta kargatzen egon. Kasu horretan, saiatu berriro, telefonoa gutxienez 20 minutuz kargatzen utzi ondoren. Telefonoa denbora luzez kargatzen eduki ondoren ezin baduzu piztu, jarri harremanetan bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin.


Telefonia piztea eta itzaltzea

Begiratu bateria kargatuta dagoela.

- Luze sakatu **pizteko tekla**, telefonia pizteko.
- Itzaltzeko, luze sakatu **itzaltzeko tekla** aukeren menua ireki arte. Hautatu **Apagar** eta, ondoren, sakatu **Acceptar**.
- Bestela, luze sakatu **pizteko tekla**, 10 segundoz, telefonia itzaltzeko.

Telefonia aktibatzea

Telefonia automatikoki pasatzen da modu etenera denbora jakin batean erabiltzen ez denean. Pantaila itzali egiten da, bateria aurrezteko, eta teklak blokeatu egiten dira, nahi gabeko eragiketarik ez egiteko. Telefonia berriro aktibatzeko, piztu pantaila, eta desblokeatu teklak.

1. Sakatu **pizteko tekla**, pantaila aktibatzeko
2. Lerratu  gora, desblokeatzeko.

OHARRA:

Desblokeatzeko eredu bat edo PINa edo pasahitza jarri badiozu telefonoari, sartu egin beharko duzu pantaila desblokeatzeko.

Ukipen-pantaila erabiltzea

Zure telefonoak ukipen-pantaila duenez, ukipen-keinu ugarirekin kontrola dezakezu.

- Sakatzea
Pantailako teklatura erabiliz idatzi nahi duzunean, hautatu pantailako elementuak, hala nola, aplikazioen eta doikuntzen ikonoak, edo sakatu botoiak. Nahikoa duzu hatzarekin ukitzea.



- Luze sakatzea
Elementu batentzat eskuragarri dauden aukerak irekitzeko (adibidez, mezu bat edo webgune baten esteka), luze sakatu elementu hori.



- **Lerratzea**

Mugitzeko, hatza pantailan horizontalean edo bertikalean arrastatu behar duzu.



- **Arrastatzea**

Arrastatzeko, sakatu segundo batzuez, presio pixka bat eginez, hatza mugitu aurretik. Elementua arrastatzen duzun bitartean, ez askatu hatza pantailatik, nahi duzun lekura eraman arte.



- **Atximur egitea**

Aplikazio batzuetan (mapak, arakatzaila eta galeria), irudiak handitu edo txikiagotu ditzakezu. Hori egiteko, jarri bi hatzak aldi berean pantailan, eta elkartu itzazu txikiagotzeko edo bereizi handitzeko.





- **Pantaila biratzea**

Pantaila gehienetan, orientazioa automatikoki alda dezakezu (bertikalean edo horizontalean), telefonoa alde batera edo bestera biratuz.

Segurtasun-neurriak

	Gidatzen ari zarela, ez egin edo ez erantzun deirik. Ez idatzi mezurik gidatzen ari zarela.
	Aldean daramazula erabili behar baduzu, urrundu 15 mm-ra.
	Pieza txikiak irentsiz gero, itotzeko arriskua dago.
	Baliteke gailuak soinu ozen bat egitea.
	Entzumenari kalterik ez egiteko, ez erabili gailua bolumen oso altuan denbora luzez.
	Ez jarri objektu magnetikoekin kontaktuan.
	Taupada-markagailuetatik eta bestelako gailu mediko elektronikoetatik urrun izan.
	Itzali ezazu, ospitaleetan eta osasun-zentroetan hala egiteko eskatzen denean.
	Itzali ezazu hegazkinetan eta aireportuetan hala egiteko eskatzen denean.
	Itzali ezazu material edo likido leherkorren ondoan zaudenean.
	Ez erabili telefonoa zerbitzuguneetan.
	Gailu honek argi distiratsua edo dirdira egiten duena igor dezake.
	Ez bota telefonoa sutara.
	Saihestu muturreko tenperaturak.
	Gailua lehor eduki, eta saiatu likidoekin kontaktuan ez jartzen.
	Ez egin telefonoa desmuntatzeko saiarik.

	Baimendutako osagarriak bakarrik erabili.
	Ez egon gailu honen mende soilik larrialdi-komunikazioak egiteko.

Erabilera-gomendioak

Gidatzea

Istripu-arriskua gutxitzeko, arreta berezia jarri behar da gidatzean. Gidatzen ari zarela telefono mugikorra erabiltzeak (baita esku libreko kitarekin ere) distrazioak sortu eta istripuak eragin litzake. Gidatzen ari zarela haririk gabeko gailuak erabiltzea mugatzen duten tokiko legeak eta araudiak bete behar dituzu.

Makinak erabiltzea

Istripu-arriskua gutxitzeko, arreta berezia jarri behar da makinak erabiltzen dituzun bitartean.

Maneiatze eta erabilera orokorra

Erabiltzailea da telefonoa erabiltzeko moduaren eta horrekin eragindako ondorioen erantzule bakarra.

Beti itzali behar da telefonoa hori erabiltzea debekatuta dagoenean. Telefonoaren erabilerak segurtasun-neurri batzuk ditu, erabiltzaileak eta haren ingurua babesteko.

- Telefonoa eta osagaiak kontu handiz tratatu beti, eta garbi eta hautsik gabe izan.
- Eduki garbi pantaila eta kameraren lentea. Pantaila edo kameraren lentea zikina baldin badago, telefonoaren erreakzionatzeko gaitasunari eragin diezaioke horrek, edo zure zereginari, eta irudien kalitatea murriztu daiteke.
- Garbitu gailua eta haren osagarriak material leun batekin; adibidez, betaurrekoak garbitzeko moduko zapi batekin. Ez erabili alkoholik edo produktu korrosiborik gailua garbitzeko; produktu horiek ez dute ukitu behar telefonoaren barruko aldea.
- Ez hurbildu telefonoa edo osagaiak sutara edo tabakotik eratorritako produktu piztuetara.
- Ez busti telefonoa edo haren osagarriak, eta ez utzi toki oso hezeetan.
- Ez bota lurrera telefonoa edo haren osagarriak, eta ez saiatu tolestean.
- Ez margotu telefonoa, ez eta osagarriak ere.

- Ez egin telefonoa edo osagarriak desmuntatzeko saiorik. Baimendutako langileek soilik egin dezakete hori.
- Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak muturreko tenperaturan (minimoa, -5 °C eta maximoa, 50 °C).
- Ez utzi telefonoa berogailuen edo goi-presioko edukiontzien barruan, ezta haietatik gertu ere (ur-berogailuak, mikrouhin-labeak edo sukaldeko tresnak). Hala eginez gero, hondatzeko arriskua dago.
- Kontsulta ezazu produktu elektronikoen hondakinei buruzko tokiko arautegia.
- Ez eraman telefonoa atzeko poltsikoan, esertzean hautsi egin baitezakezu.

Haur txikiak

Ez utzi telefonoa edo haren osagarriak haur txikien esku-
ra, eta ez utzi haiekin jolasten. Zauriak egin ditzakete edo
beste batzuei eragin. Halaber, telefonoa kaltetu dezakete
ustekabean. Telefonoak ertz zorrotzeko pieza txikiak dituzte;
piezek zauriak eragin litzakete edo askatu eta itotzea
eragin lezakete.

Desmagnetizazioa

Desmagnetizaziorik gerta ez dadin, ez utzi gailu elektronikorik
edo objektu magnetikorik telefonotik gertu luzaroan.

Deskarga elektrostatikoa (ESD)

Ez ukitu nano-SIM txarteleko metalezko konektoreak.

Antena

Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.

Erabilera arruntaren posizioa

Deiak egitean edo jasotzean, jarri telefonoa belarriaren
ondoan, beheko aldea ahorantz begira dagoela.

Airbag-ak

Ez utzi telefonoa airbagetik edo hura zabaltzeko gunetik
gertu. Airbagak indar handiz puzten dira, eta telefonoa hor
egoteak zauri larriak eragin ditzake. Gorde toki seguruan
gidatzen hasi aurretik.

Epilepsia-krisiak / zorabioak

Gailu honek argi distiratsua edo dirdira egiten duena igor
dezake. Pertsona batzuk zorabiatu egin daitezke, edo epi-
lepsia-krisiak jasan ditzakete (orain arte eduki ez badituzte
ere), distira edo argi-keinuen esposiziopean adibidez bi-
deojokoetara jolastean edo bideoak ikustean.

Noizbait horrelako asalduraren bat jasan baduzu edo familiariko norbaitek jasan badu, zoaz medikuarengana.

Mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak (ingelesez, RSI, Repetitive Strain Injury) ekiditeko, testu-mezuak idaztean edo telefono mugikorrean jolastean:

- Ez sakatu gehiegi telefonoa.
- Leun sakatu botoiak.
- Erabil itzazu sakatu beharreko botoi-kopurua murrizteko diseinatu diren telefonoaren funtzio bereziak, esaterako, mezuen txantiloak edo testu prediktiboa.
- Hartu atsedenaldiak, luzatzeak egiteko eta erlaxatzeko.

Larrialdi-deiak

Telefono honek, haririk gabeko edozein telefonok bezala, irrati-seinaleen bidez funtzionatzen du; horregatik, ezin da bermatu konexioa egoera guztietan. Beraz, ezin duzu haririk gabeko telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko.

Zarata handiak

Telefono honek belarria mindu dezaketen zarata handiak sor ditzake. Jaitsi bolumena entzungailuak, bluetooth bidezko entzungailu estereoak edo beste audio-gailu bat erabili aurretik.

Telefonoa berotzea

Telefonoa berotu daiteke kargatzen ari dela eta erabilera normalarekin.

Segurtasun elektrikoa

Osagarriak

Baimendutako osagarriak bakarrik erabili.

Ez konektatu telefonoa bateragarriak ez diren produktuetara edo osagarrietara.

Ez ukitu bateriaren kontaktuak eta objektu metalikoek (adibidez, txanponak, giltzek) ez dezatela ukitu bateria eta ez dezatela zirkuitulaburrik sortu.

Ez zulatu bateriaren gainazala objektu zorrotzekin.

Auto batera konektatzea

Eskatu laguntza profesionala, telefonoaren interfazea ibilgailuaren sistema elektronikora konektatzen duzunean.

Produktu akastunak eta hondatuak

Ez egin telefonoa edo osagarriak desmuntatzeko saiurik. Langile prestatuek bakarrik instalatu edo konpondu behar dute telefonoa edo osagarriak.

Telefonoa edo osagarriak uretara erori badira, zulatu badira edo erorketa larriren bat izan badute, ez itzazu erabili baimendutako zerbitzu-zentro batean berrikusi arte.

Irrati-maiztasunen interferentziak

Interferentziei buruzko adierazpen orokorra

Kontu handiz erabili telefonoa gailu mediko pertsonaletatik gertu (taupada-markagailuak eta audiofonoak, esaterako).

Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15 cm-ko distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Gomendagarria da taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarrarian erabiltzea telefonoa, eta bularraldeko poltsikoren batean ez eramatea.

Audiofonoak

Baliteke audifonoak edo kokleako bestelako implanteak dituztenek interferentziak sumatzea haririk gabeko gailuak erabiltzean edo halakoren bat gertu izatean. Interferentzia-maila entzungailu-motaren eta interferentzia-iturriaren eta gailuaren arteko distantziaren arabera izango da. Baliteke bien arteko distantzia handituta interferentzia txikitzea. Halaber, audiofonoaren fabrikatzailearekin kontsulta ditzakezu beste aukerak.

Gailu medikoak

Galdetu zure medikuari eta fabrikatzaileari ea telefonoa erabiltzeak eraginik izan dezakeen gailu medikuaren funtzionamenduan.

Ospitaleak

Desaktibatu haririk gabeko gailua hala eskatzen denean ospitaletan, kliniketan eta osasun-zentroetan. Ekipo mediko sentikorrekin interferentziarik ez izateko ezarri dira baldintza horiek.

Hegazkinak

Desaktibatu haririk gabeko gailua aireportuko edo aire-lineako langileek hala eskatzen dizutenean. Galdetu aire-lineako langileei hegazkinean haririk gabeko gailuak erabiltzeko aukera badagoen. Gailuak hegaldi-modua badu, hegazkinera igo aurretik aktibatu behar da.

Interferentziak autoetan

Gogoan izan honako hau: ekipo elektroniko batzuekin egon litezkeen interferentziak direla medio, auto-fabrikatzaile batzuek ez dute onartzen telefono mugikorrek beren ibilgailuetan erabiltzea, instalazioak esku libreko ekipoa eta kanpoko antena ez baditu behintzat.

Leherketa-arrisku handiko inguruneak

Zerbitzuguneak eta atmosfera lehergarriak

Lehergarriak izan daitezkeen atmosfera duten tokietan, kasu egin haririk gabeko gailuak (telefonoa edo bestelako irrati-ekipoak) itzaltzeko jarraibideei.

Atmosfera lehergarriak izan ditzaketen tokien artean, hauek daude: erregaiak hartzeko guneak, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak (hala nola aleak, hautsa edo metal-hautsa).

Detonagailuak eta leherketa-eremuak

Itzali mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremuetan zaudenean edo gailu igorleak/hartzaileak eta gailu elektronikoak itzaltzea gomendatzen duten eremuetan, leherketekin gerta daitezkeen interferentziak saihesteko.

Irrati-maiztasunerako esposizioa (IM)

Irrati-maiztasunari buruzko deklarazio orokorra

Telefonoak transmisore eta hartzaile bana ditu. Piztuta da goenean, irrati-maiztasuneko energia jasotzen eta transmititzen du. Telefonoz hitz egitean, deia kudeatzen duen sistemak kontrolatzen du telefonoak transmititzen duen energia-maila.

Absortzio espezifikokoaren tasa (SAR)

Gailu mugikor hau irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Nazioarteko arauak gomendatutako irrati-uhinekiko esposizio-mugak ez gainditzeko moduan diseinatu da. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak garatu zituen, eta pertsona ororen adina eta osasun-egoera gorabehera segurtasuna ziurtatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte.

Absortzio espezifikoaren tasa (SAR, Specific Absorption Rate) deritzon neurri-unitatea erabiltzen dute arauak. Gailu mugikorretarako, 2 watt/kilogramo muga dago. Buruan erabiliz egindako probetan gailu honek emandako balio altuena 1.29 W/kg* izan zen, eta gorputzean erabiliz egindako probetan, berriz, 1,34 W/kg*. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke, hala nola gorputzaren gainean, erabiltzailearen gidaliburu honetan deskribatzen den bezala**.

SAR balioa gailuaren transmisio-energia handiena erabiltza neurtzen da; hori dela eta, gailu honen benetako SAR balioa lehenago adierazitako mailaren azpitik egoten da, normalean, funtzionatzen ari denean. Gailuaren energia-mailaren aldaketa automatikoengatik egiten da hori, sarea atzitzeko behar den gutxieneko maila bakarrik erabiltzen duela bermatzeko.

* EN 50360, EN 50366, EN62479, EN 62311, EN 62209-1 eta EN 62209-2 arauen arabera egin dira probak.

** Kontsulta ezazu telefonoa gorputzean erabiltzeari buruzko atala.

Gailua gorputzetik hurbil erabiltzea

Irrati-maiztasunaren (IM) erradiazioari buruzko segurtasuneko informazio garrantzitsua: Irrati-maiztasunen eraginari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, telefonoa gorputzetik gutxienez 15 mm bereizi behar da. Jarraibide horiek betetzen ez badira, baliteke irrati-maiztasuneko erradiazioek arauak ezarritako mugak gainditzea.

Irrati-maiztasuneko (IM) eremuekin kontaktua mugatzea

Irrati-maiztasuneko eremuekin kontaktua mugatu nahi duten erabiltzaileentzat, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) aholku hau ematen du:

Prebentzio-neurria: informazio zientifiko honek ez du adierazten telefono mugikorrek erabiltzeko prebentzio-neurri berezirik hartu behar direnik. Erabiltzaileek horren inguruko kezkaren bat badute, aukera dute irrati-maiztasuneko eremuekin haiek edo haien seme-alabek duten kontaktua mugatzeko, deien iraupena gutxituz edo esku libreko gailuak erabiliz telefono mugikorrek burutik eta gorputzetik urrun izateko.

Gai horri buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus OME-ren webguneko orri nagusia: <http://www.who.int/peh-emf> (WHO Fact sheet 193: 2000ko ekaina).


RoHS Direktiba betetzearen aitortpena

Ingurumen-inpaktua murrizteko eta bizi garen planetaren ardura handiagoa izateko helburuarekin, dokumentu honen bidez formalki aitortzen da Blade S6 telefonoak (ZTE CORPORATIONek egindakoa) Europako Batasunaren 2011/65/EB RoHS Direktiba (Substantzia Arriskutsuen Murrizketa) betetzen duela substantzia hauei dagokienez:

1. Beruna (Pb)
2. Merkurioa (Hg)
3. Kadmioa (Cd)
4. Kromo hexabalentea (Cr (VI))
5. Bifenilo polibromatuak (PBB)
6. Polibromodifeniloen eterrak (PBDE)

ZTEk fabrikatzen duen Blade S6 gailuak, Europako Batasuneko 2011/65/EB Direktibaren betekizunak betetzen ditu.

Gailu zaharra botatzea

	<ol style="list-style-type: none">1. Produktu batek edukiontzi ezabatu baten irudia badu, horrek esan nahi du Europako Batasunaren 2012/19/EE Direktiban jasotzen dela produktu hori.2. Produktu elektriko eta elektronikoak ez dira bota behar udal-hondakinekin batera, eta tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneetara eraman behar dira.3. Gailu zaharra behar bezala deuseztatzen baduzu, ingurumenerako eta giza osasunerako ondorio kaltegarriak saihesten lagunduko duzu.
---	---

Produktu hau birziklatzeari buruzko informazioa WEEE Direktiban oinarrituta dagoenez, bidali mezu elektroniko bat helbide honetara: weee@zte.com.cn

A D O S T A S U N - D E K L A - R A Z I O A

CE 0700 

Honen bidez deklaritzen dugu jarraian aipatzen den produktuak

Produktu-mota: LTE/WCDMA/GSM (GPRS) banda dualeko telefono mugikor digital multimodala.

Modelo-zenbakia: Blade S6

Produktuaren deskribapena: LTE/WCDMA/GSM (GPRS) banda dualeko modu anitzeko telefono mugikor digitala

Europar Batasuneko Ekipo irrati-elektrikoei eta telekomunikazioetako ekipo terminalei buruzko direktibaren (1999/5/EE Direktiba), Produktu elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsuak erabiltzeko murrizketei buruzko direktibaren (2011/65/EB Direktiba) eta Energiari lotutako produktuei aplikatu beharreko diseinu ekologikoko eskakizunei buruzko direktibaren (2009/125/EE Direktiba) oinarritzko babes-eskakizunak eta aldaketak betetzen ditu. Probak eta ebaluazioa pasa dituzten laginak bezala fabrikatu diren ale guztiei aplikatzen zaie deklarazio hau.

1999/5/EE Direktibaren eskakizunen arabera produktuaren adostasun-ebaluazioa PHOENIX TESTLABek (erakunde-zenbakia: 0700) egin zuen; 2011/65/EB Direktibaren eskakizunen arabera produktuaren adostasun-ebaluazioa Intertek Testing Services Ltd., Shanghai LAB enpresak egin zuen, eta 2009/125/EB Direktibaren eskakizunen arabera produktuaren adostasun-ebaluazioa Shenzhen Huatongwei International Inspection Co., Ltd-k egin zuen. Ebaluazioak estandar eta araudi hauen arabera egin ziren:

Baldintza	Estandarra
Osasuna eta segurtasuna	EN 62209-1:2006, EN 62209-2:2010 EN 50360:2001/A1:2012 EN 50566:2013/AC:2014 EN 62479:2010 EN 62311:2008 EN 60950-1:2006+A11:2009+A1:2010+A12:2011 EN50332-1-2000; EN50332-2-2003
Bateragarritasun elektromagnetikoa	EN 301 489-1 V1.9.2:2011 EN 301 489-7 V1.3.1: 2005 EN 301 489-3 V1.6.1;2012 EN 301489-17 V V2.2.1 :2012 EN 301 489-24V1.5.1:2010
Irrati-espektroa	EN 301 511 V9.0.2 EN301 908-1/-2/-13 V6.2.1 EN 300328 V1.8.1 EN 301893 V1.7.1 EN 300 440-1 V1.6.1; EN 300 440-2 V1.4.1;
RoHS	IEC 62321:2013
ErP	(CE) zk.: 278/2009

Fabrikatzaileak du deklarazio honen ardura:

ZTE Corporation

ZTE Plaza, Keji Road South, Hi-Tech, Industrial Park,
Nanshan District, Shenzhen, Guangdong, 518057,
Txinatar Herri Errepublikak


Enpresaren izenean sinatzen duen pertsona baimendua:

Yao cuifeng

ZTE Corporation-eko Kalitate Saileko zuzendaria

*Izena eta enpresan duen postua inprentako letrekin
idatzi dira*

Shenzhen-en, 2015eko urtarrilaren 24an



Lekua eta data

Lege-balioa duen sinadura

Herrialde hauetan funtzionatzen du ekipo honek:				AT	BE
CY	CZ	DK	EE	FI	FR
DE	GR	HU	IE	IT	LV
LT	LU	MT	NL	PL	PT
SK	SI	ES	SE	GB	IS
LI	NO	CH	BG	RO	TR